

## Moda

H

orrela paratuz gero, modako, dena da modakoa. Nazioa, noski, baita nazio gabetasuna ere.

Izan ere, horrela paratuz gero, nor ausartuko da ukatzen nazio txikien aldarrikapena Herderren modak mustu zuela? Edo deskolonizazioaren harira, marxismoa eta nazioa lotu zituen korrante ideologikoa modak plazaratu zuela nork ezetsiko du? Eta ni-a, Rousseautik hona, berak sortu zuen gizatasun naturalean oinarritutako ni-a, dago modan, Eider. Horregatik iruditzen zait lartxo moda guztiak sistemaren mesedetan sortuak izan direlako zure baieztapena; moda, zure testuaren arabera modako dena baldin bada, alegia, historiaren garai horretan puri-purian dauden korrante ideologiko eta abarrez ere ari zara. Eta horiek, jakina, denetatik izan dira, sistemaren kontra eta alde, hasieran behintzat.

Nik ez dut uste orain modan dagoena nazio gabe izatea dela. Niri iruditzen zait, orain egunerokotasunera ailegatu direla lehen ere aintzat hartzen ez ziren errealitatearen alderdiak. Zure hitzetan “oilasko batek baino hormona gehiago irentsi dituen” transexual hori orain modan dago, bai, errealitateari buruzko ikuspegia garatu duelako, errealitate hori eraldatzeko tresnak sortu dituelako, ideologia bat garatu duela. Bejondeiola moda!

Ohar bat, polemikan sartu nahi gabe. Zuk, Eider, diozunaren harira: “Natura tronpatu egin zela barneratu” diozu. Ez, gezurra da, natura ez da tronpatzen gizartea tronpatzen da. Botereek ezarri dute ar den gorputz horren gainean gizon izan beharra, ez naturak; izan ere, natura da lehen ezartzen zaigun botea. Eta barkatu lezioa.

JUDIT FERNANDEZ



Juanjo Olasagarre



Agirre



Rodriguez

Ni, dena dela, eta ez naiz zuei buruz ari, jakina, kokoteraino nago euskaldun gisa nola bizi behar dudana agintzen didatenez. Akaso modu bakarra ote dago euskaldun bizitzeko? Badu zentzurik independentziaren alde beste belaunaldi bat xahutzea gobernuen sinbologiaren eta zigorren ezarpenaren kudeatzea baino ez zaienean gelditzen?

Imanol Galfarsorok *Subordinazioaren kontra* liburuan aldarrikatzen duen bezala –frogatu gabe nire uste apalean– nazioarena da dialektikaren legeari eraginen dion kontradikzio nagusia? Orduan, zertan lagunduko dio Euskal Herriaren independentziak Munduko Iraultzari? Areago, zer onura ekarriko dio Boliviako aimara bati gure independentziak? Zer egin behar du transexualak naturak zizelkaturiko gorputz baten barnean, independentzia lortu arte esperatu, akaso? Baina batez ere, nola askatuko nau ni? Hori dut galdera.

Eta ni-tik ni-ra ailegatu gara, Katixa. Nik ez dut nitaz hitz egiten, beno hori ere bai, baina ni-tik idazten saiatzen naiz. Eta honetan ari garela, zergatik ni-a bai nobeletarako eta ez zutabetarako? Akaso literatura deitzen den hori ote errealitateetik ihes egin dezakeen arlo bakarra? Zutabegintzak, ez?

Nik ez dut halako bereizketarik egiten. Bai ordea bereizten ditudala besteen sufrimenduarekiko enpatia graduak. Hor zehar oso ezkertiar gelditzen da munduaz sufritzen dugula aldarrikatzea. Nire ustez gezurra da. Inork ezin du munduaren sufrimendu guztia sufritu. Hori anitzak garela esatea bezalako Fernandezek egia bat da. Egunkaria zabaltzean, gure zaletasun-izaeren arabera aukeratzen dugu norengatik hartu min. Nora doa min hori? Balio du ezertarako? ■

Kokoteraino nago euskaldun gisa nola bizi behar dudana agintzen didatenez. Akaso modu bakarra ote dago euskaldun bizitzeko? Badu zentzurik independentziaren alde beste belaunaldi bat xahutzea gobernuen sinbologiaren eta zigorren ezarpenaren kudeatzea baino ez zaienean gelditzen?